



sortu.info

L.G.: SS-1417-2012 CC: BY-SA

16.ZBKIA | 2016ko ABUZTUA

SORTUREN BIRFUNDAZIOA

***“Prozesu independentista martxan
jartzeko apustua berresten dugu”***

Editoriala

Jende aparta gara, gauza apartak egiten dituen

Ezer baino lehen besarkada bana bidali nahi dizuegu Sorturen Birfundaziorako Zuzendaritza Ekipoaren partetik espetxeetan bahituta zauzkaten kide guztioi.

Uztailaren 2an Gasteizen egin genuen Asanblada Nazionalean, ezker abertzaleak behar duen berrikuntzarako lehen urratsa eman genuen. Aspal-diko partez arnas berezi bat sumatu zen gela hartan. Abian eztabaida prozesuaren ondorioak praktikan jartzeko lehen urratsa izan zen hura. Asanblada hasi aurretik bertatik aurpegi alaiak eta ilusioa ziren nagusi. Asanblada amaituta oso sentsazio honekin itzuli zen bakoitzak bere herrira, egoerari buelta eman diezaiokigula sinetsita. Ez da gutxi.

Sortu.info honetan bertan bizi izandako arnas hori jasotzen saiatu gara, espetxeetan ere jaso dezazuen ilusio dosi bat. Ea horretarako balio duen.

Hau bide luze baten hasiera besterik ez da ordea. Hurrengo hilabeteetan ezker abertzaleak duen inteligentzia kolektibo guztia eta esperientzia akumulatu guztia aktibatzea dagokigu, gure onena emanez, berriz ere herri hau martxan jarriko duen ibilbide orria eta jarduteko modua finkatzeko.

Horregatik jotzen dugu zugana ere. Jakin badakigu ezker abertzaleak duen altxorrik handiena bere militantzia eta

konpromisoa dela. Sarri esan izan dugu preso politikoak ere prozesua azkartzeko aktibo politikoa zaretela. Lelo hutsetik harago, zentzu osoa duen baieztapena da.

Sortuk, helburuak eta misioa argi izanda, ezker abertzalekoa sentitzen den pertsona ororen etxe izateko borondatea du. Zure etxe ere izan nahi luke. Hargatik animatu nahi zaitugu eztabaida prozesuan parte hartzera, horretarako izena emanda.

Jakin badakigu sarri espetxeetako murrak guk nahi baino sendoagoak izaten direla baina hala ere ahalegin guztiak egingo ditugu eztabaida modu eroso eta duinean eman ahal izateko eta ekarpenak behar bezala egin ahal izateko dokumentazio eta bitarteko guztiak helarazteko.

Gauza handian egin izan ditugu gure ibilbide luzean. Gure herriak gauza handiak egin ditu eta Erriberan esaten duten gisan “cuando queremos somos mucho grandes.” Oraingoan ere egingo dugu. Hainbeste merezi du gure herriak.

Aurrera bolie lagunak!



U2 - KRONIKA

“Prozesu independentista martxan jartzeko apustua berresten dugu”



Larunbata goiza, Sorturen batzar nazionala Gasteizko Europa Jauregian. Zortzirehun inguru lagun areto bikainean. Eszenatokia ekitaldietan erabili ohi den modukoa. Kezka ugari baina ilusio handiz etorkizunari begira, guztia irabazteko dugula sinesturik. Giro berezia airean, aldarte ona.

Sartu gara, izenak eman, antolakuntzakoak saldatu eta “GORA HERRIA” dioten gorri, hori, more, urdin... kamisetak eskuragai.

Lehen lerrotan orainarte Kontseilu Nazionaleko kideak. Maite Ubiria eta Iosu Lizarralde-ren sarreraren ostean, Hasier Arraiz eszenatokian. Kontseilukideei eskerrak emanez eta zuzendaritza ekipo berriaren hautapena “lehen aldiz ez poliziak ezta guardia civil-ak ez dutela erabakiko” esanez hasi du bere interbentzioa.

Sortu estrategia berriaren urrats gisa jaio zela gehitu du. Meritu bat azpimarratuz jarraitu du bere hitzartzea, estrategia independentista

egonkortu egin izana alegia. “Gaur da eguna aurrera begira jartzen hasteko. Ezker abertzalearen ondare nagusia, bada, milaka eta milaka lagun dituela gauza asko egiteko prest egon dena eta dagoena ideia batengatik, proiektu politiko batengatik, Euskal Herria aske eta sozialistarengatik” esan du Arraiz-ek.

“Estrategia berriaren ahalmen guztia askatzeko kultura politiko berri bat behar behar dugu estrategia muturreraino eramateko”. Galeano erreferentzia hartuta «Somos lo que hacemos para cambiar lo que somos» aurrera begirako zioa aipatuz eman dio amaiera bere hitzartzeari.

Jarraian Miren Zabaleta eta Pello Otxandiano Birfundazioaren planaz aritzeko. ABIAN eztabaida mugarri, txaluparen, euskal txaluparen metafora ahotan Mirenek abenduaren 17ko Kongresura bitarteko prozesuaren klabeak azaltzeko. Zutik Euskal Herria-rekin txalupa itsasoratu genuen esanez

“Herri honek esnatu behar du maila sozial eta politikoan baina hori bai umiltasunez eta etsi gabe”.

MAITE SABALZA



hasi da. “Itsasoan nabigatzeko ontzi berria behar dugu, txalupa zaharkitua, itsasoaren mende egon da eta horregatik, ontzia behar dugu, Euskal Errepublikarako portura eramateko. Baina ontzi horrek ere bere ezaugarri jakinikoak izan behar ditu: borrokalaria, kementsua, alaia, eraldatzailea, errebeldea eta bizia”.

Bi helburu nagusi ditugula esan du Mirenek, “hausnarketa kolektibo

“Ezker abertzalearen ondare nagusia, bada, milaka eta milaka lagun dituela gauza asko egiteko prest egon dena eta dagoena ideia batengatik, proiektu politiko batengatik, Euskal Herria aske eta sozialistarengatik”

HASIER ARRAIZ

erraldoi bat burutzea etorkizuneko praktika politiko berritzeko eta militantzia eredu berriak lantzeko”. Eta norabide horretan partehartzearen garrantzia azpimarratu du, azken finean, “pertsona bakan askok, toki txiki askotan, gauza txiki asko egiten, mundua aldatu dezaketela” esanez amaitu du bere interbentzioa.

Pello Otxandianok alta, birfundazioaren ezaugarriak azaltzeari ekin dio. Zentzu horretan, 2017ko irailean egingo den Konferentzia Politikoa jarri du ortzemugan.

Zuzendaritza berria oholtzara igo da, “Euskal presoak Euskal Herrira” ikurra lehen keiñu gisa, eta “Borroka da bide bakarra” oihu artean.

Arnaldoren txanda. Presoak eta senideak bere lehen alokuzioan. Segidan Ugaitz Elizaran eta Rafa Diaz izan ditu gogoan, “Ez dugu borroka egiten presoak daudelako, presoak daude herri honek borroka egiten duelako” borobildu du.

Askapen nazionala eta soziala erdigune politikoan jarri beharraz aritu da,

euskal estatu sozialista gurera ekartzeko. “Herri honetatik jaio ginen eta berari zor diogu guztia. Herririk gabe ez gara ezer”.

Testuinguru historiko politiko honetan ezker abertzaleak orain dela 40 urte egindako diagnostikoa zuzena zela esanez jarraitu du Otegik. “Orduan esan genuen trantsizio eredu ez zela egokia gure herriarentzat. Eta hori agerian geratu denean, non estatua krisi sakonean sartu den, bipartidismoa, korrupzioa, monarkia, lurralde bertebrazioa... guzti hori lehertzen denean eta zeharka krisi ekonomikoa larria sartzten denean eta guk estrategia egokia genuenean gatazka politikoa desagertu egin da”.

Estatu espainolari bigarren frontea irekitzearen alde agertu da. “Konfrontaziozko frontea euskal errepublikaren alde. Horretarako aukera berriak zabalduko dira. Espainiar estatua ez da demokratizatuko. Hirugarren biderik ez dago. Hemen ez dago inongo aukerarik estatuarekin erdiko bide bat antolatzeko”.



“Eta nazioartetik ere beste aukera bat etorriko da. Brexitaren ondorioz, Eskozian eta Irlandan aukerak zabalduko dira eta Catalunyan. Olatu hori ere etorriko da herri honetara. Espainian ez baina hemen bai, hemen aldaketa posible da”.

Honaino iritsi izana printzipio eta balore batzuk errespetatzeagatik izan dela jarraitu du, “apaltasuna, zintotasuna eta herri honekiko maitasuna. Borroka egiten dugu herri hau maite dugulako. Egiten ari garena ederra da. Mundu honetan ez dago gauza ederragorik, langileen alde, txiroen alde eta herri zapalduen alde borroka egitea baino”.

Colombiako Bake prozesua eta Kurdistan gogoan interbentzioarekin amaitzeko.

12:30ak. Maite Sabalza eta Arkaitz Rodriguez-entzako azken hizketaldiaren hasiera, agindu bat zuzenduz “Batzar honetan hartutako konpromisoak zorrotz beteko ditugula. Eskuz esku egin behar dugu lan, lantalde erraldoi gisa, ze esaerak dioen bezala

“Soñar solos es sólo soñar, soñar juntos es revolucionario”.

Akatsak onartuz hasi dute hitzaldia, estrategia aldaketan sinetsi zuten guztiei zuzenduta eta beren itxaropenak zapuztuta ikusi dutenei, krisiaren dimentsioa ulertu ez eta Estatuak bakeari ezarritako blokeoa buelta ez emateagatik.

“Ez diogu behar bezalako arretarik jarri gure herriari. Herriari zor gatzatzen eta hari eman azalpenak, bera baita estatuaren jarrera anker eta antidemokratikoa ezbaian jar dezakeena” aipatu du Maitek. “Herri honek esnatu behar du maila sozial eta politikoa baina hori bai umiltasunez eta etsi gabe”.

Foru nazioa eta hirugarren bidea baztertu dituzte, eta biderik onena independentzia dela aldarrikatu dute. Estatuaren menpe jarraitzeak gure nazioari uko egitea da, gure aberastasun sozial eta ekonomikoari uko egitea, demokraziari uko egitea, beraz, gu bezala independentzia eta sozialismoa, feminismoa, euskara ardatz hartzen dutenek fase politiko berri honetan bere ekarpena egitera gonbidatu zituzten. Horretarako, erresistentziatik harago eraikuntzara jotzeko aldarria egin dute.

“Prozesu independentista batek iraultza eskatzen du, antolaketan, kultura politikoan, mentalitateetan,... orohar independentismoan. Garaia da eskaintza independentista bideragarria lantzeko. Ilusioa, pasioa eta arima eskatzen ditu prozesu independentistak, eta eduki sozial indartsua” ohartarazi du Arkaitzek.

Gure onena aterako dugu agindu du. Hortaz, beste alderdi eta eragileei deia luzatu die oinarritzko printzipio bati helduz “eskubide guztiak herritar guztientzat”. Beraz, “gure herriaren eta herritarren aldeko prozesu independentista martxan jartzeko apustua berresten dugu” esanez amaitu du interbentzioa.

Txalo zaparrada luze batek eman dio amaiera batzar emankorrari. ■

*“Itsasoan nabigatzeko ontzi berria
behar dugu, txalupa zaharkitua,
itsasoaren mende egon da eta
horregatik, ontzia behar dugu,
Euskal Errepublikarako portura
eramango gaituena”.*

MIREN ZABALETA

*“Garaia da eskaintza
independentista bideragarria
lantzeko. Ilusioa, pasioa eta
arima eskatzen ditu prozesu
independentistak, eta eduki sozial
indartsua”.*

ARKAITZ RODRIGUEZ

*“Borroka egiten dugu herri hau maite
dugulako. Egiten ari garena
ederra da. Mundu honetan ez dago
gauza ederragorik, langileen alde,
txiroen alde eta herri zapalduen alde
borroka egitea baino”.*

ARNALDO OTEGI

Birfundaziorako zuzendaritza ekipoa

Sorturen uztailearen 2ko
Asanblada Nazionalak
Birfundazioarako
Zuzendaritza Ekipo berri
baten osaketari bide eman
zion. Ekipoa osatzeko honako
irizpideak hartu dira aintzat:

Berrikuntza eta freskotasuna

Gaztetasuna eta esperientzia

Eraginkortasuna: misioa aurrera
ateratzeko kohesio eta baliabide
nahikoak

Gaur egungo Sortu ezagutzen duten
kideak eta Sorturen ibilbidean
egunerokotasunean itota ibili ez diren
kideak

Nazio mailako ekipoa

Gizon eta emakumeen arteko
parekidetasuna

HONAKO 15 KIDEEK OSATZEN DUTE BIRFUNDAZIORAKO ZUZENDARITZA EKIPOA:



Arnaldo Otegi Mondragon
Elgoibar - 1958

Filosofian lizentziatua eta Zuzen-
bideko gradua burutzeaz. Sortuko
Idazkari Nagusia.



Maite Sabalza Baztan
Iruñea - 1978

Historian lizentziatua eta Ingelesa Ma-
gisteritza egina. Nafarroako Kontseilu-
ko eta Politika Feminista taldeko kidea.



Pello Otxandoano Kanpo
Otxandio - 1983

Telekomunikazioen ingeniariartzan
doktorea. Euskal Herria Ezkerretik
Eraikiz-eko arduraduna.



Sonia Jacinto Garcia
Oretea - 1977

Zuzendaritzako Idazkaritzan goi mai-
lako titulaturia eta Administrazioa eta
Finantzak goi zikloa amaitzeaz.



Gotzon Elizburu Beristain
Soraluze - 1988

Kazetaritzan lizentziatua eta EITB-EHU
Multimedia Komunikazioan masterra. Ira-
tzar Fundazioko komunikazio arduraduna.



Miren Zabaleta Telleria
Iruñea - 1981

Zuzenbidean lizentziatua eta Filosofia
gradua amaitzeaz. "Experta Universita-
ria en Violencia de Género" tituladuna.



Gorka Elejabarrieta Diaz

Deusto - 1977

Soziologian Lizentziatua.
Nazioarteko Lantaldeko kidea.



Enkarna Cordón Endeiza

Santurzi - 1960

Hezkuntza mugimenduan aritua da.
Bizkaiko barne antolaketa arduraduna.



Arkaitz Rodriguez Torres

Donostia - 1979

Industria-Elektronikako ingeniaria teknikoa eta Enpresa-zuzendaritza gradua bukatzeaz.



Jone Etxeberría Agirre

Goierri - 1979

Filosofian Lizentziatua eta Hizkuntza-Teknologiak (Hiztek) Graduondokoa EHU. Sozioekonomiako arduraduna.



Unai Gonzalez Azua "Txino"

Gasteiz - 1980

Biologia diplomatura eta Magisteritza gradua burutzen. Arabako Euskal Herria Ezkerretik Eraikiz-eko arduraduna.



Oiakue Azpiri Robles

Bilbo - 1972

Soziologian lizentziatua da. Politika Feministako arduraduna.



Haimar Altuna Ijurko

Lizartza - 1976

FP Elektronikako titulua du. Egun, Gipuzkoako koordinatzaile ondokoa eta Gatazkaren konponbideko arduraduna.



Kizkitza Gil de San Vicente

Antigua - 1974

Ikasle eta Gazte mugimenduko militante ohia. Feminista, sindikalista eta Ipar Hegoa Fundazioko kidea.



Eneko Aldana Douat

Ziburu - 1989

Zientzia Politikoetan lizentziatua eta Master bat eginda. Ziburuko Hautetsia.

Kongresuko Berme Batzordearen osaketa

BATZORDEKO KIDEAK

ARANTXA ITURRARTE ETXARRI Leitza, 1956.
FLOREN AOIZ MONREAL Tafalla, 1966.
NURIA ALZUGARAI GARCIA Donostia, 1974.
SANTOS INDAKOETXEA ARANGOIA Iruñea, 1951.
KARMELO LANDA MENDIBE Ea, 1952.

ORDEZKO KIDEAK

PABLO GOROSTIAGA GONZÁLEZ Audio, 1941.
MAITE DIAZ DE HEREDIA RUIZ DE ARBULO Gasteiz, 1971.
NEKANE ERAUSKIN OTEGI Arama, 1962.
HAIZEA ZILUAGA LARREATEGI Bilbo, 1979.
IÑAKI OLALDE ARANA Agurain, 1957.

PELLO OTXANDIANO eta MIREN ZABALETA**SORTUKO ZUZENDARITZA TALDEKO KIDEAK**

“Sorturen Birfundazio Kongresua berritzailea, parte-hartzailea eta gardena izango da”

Uztailaren 2an Gasteizko Europa Jauregian egin zen Batzarraren ondotik, Sortuko zuzendaritza ekipoko kide hautatu berriak diren Pello Otxandiano eta Miren Zabaletari abenduan Sortuk egingo duen Kongresuaren gaineko dozena erdi galdera luzatu dizkiegu. Hona erantzunak.

Zergatik birfundazioa?

PELLO OTXANDIANO: Ezker abertzaleak hausnarketa estrategiko bat egin berri du, ABIAN eztabaida. Hausnarketa horretan, ezker abertzalearen milaka kidek Zutik Euskal Herria ebatzi zutenetik gaur arte bitarteko ibilbidearen balorazio autokritiko zorrotza burutu dugu eta baita aurrera begirako erabakiak hartu ere. Erabaki horien artean kokatzen da ezker abertzale osoaren birfundazioaren mandatua eta, zehazki, Sortu berarena ere.

Horrela izanik, Sorturen birfundazio prozesuarekin, ziklo historiko honetarako helburuak lortzeko ezker abertzalearen tresna politiko berria izango dena eraiki nahi dugu, bide horretan gure proiektu politiko historikoa ipar izango dugularik.

MIREN ZABALETA: Eta zeintzuk dira ziklo historiko honetarako helburuak? Herri hau berandu baino lehen independentziara eramango duen prozesu soberanista herritar eta eraldatzaile bat martxan jartzea. Berau bururaino eramateko nahikoa baldintza material eta sozial ditugula gurean eta ezin garela, Estatuen borondatearen ustezko aldaketa baten esperoan geldituko.

Unea iritsi da, herri honentzako proiektu eraldatzaile eta askatzailea bururaino eramateko. Eta horrek, izena ere badu: Euskal herritarren ongi bizitze eta eskubideak egikaritzeko dituen Euskal Errepublika.

Zergatik orain, hauteskunde garaian?

P.O.: Sorturen Birfundazio prozesua, irismen luzeko prozesu gisa ulertzen

dugu. Beraz, bere bokazioa ez da hauteskunde testuinguruari lotutako ariketa bat egitea, baizik eta datozen urteetarako finkatu ditugun erronkak erdiesteko beharrezkoa dugun ezker abertzalearen tresna politiko berria eraikitzearena.

M.Z.: Alabaina, agerizkoa da datozen EAEko hauteskundeetan jokoan duguna. Hauteskunde horiek Euskal Herrian burujabetza sozial eta nazionalaren aldeko prozesu herritar bat abiarazi eta irabaz bidean jartzeko aukerak biderkatu edota zailduko dizkigu. Eta zentzu horretan, gure apustua argia da: EH Bilduk egingo duen eskaintza independentista eta aurrerakoia bultzatzea eta hiru herrialde horietako ahalik eta herritar gehienen indarrak, bozkak, biltzeko ahalegina egitea.

Kongresuak akontezimendu sozial eta politikoa izan behar duela diozue.

M.Z.: Birfundazio Kongresua nola-koa beharko lukeen izan hausnartzen hasi ginenean, gauza bat argi genuen: Birfundazio Kongresua ezin zitekeela ohiko kongresu formal bat izan. Orain arteko Sorturen ateak ireki eta gertakari izaera izango zuen prozesu bat egin behar genuela, akontezimendu politiko eta sozialaren izaera duen Kongresu berritzaile bat, hain zuzen.

Bi arrazoiengatik: batetik, Birfundazio Kongresuan, eta prozesuan oro har, gaur egun Sortun antolatuak dauden indarretatik harantzago, ezker abertzalearen proiektu historikoarekin eta ABIANek finkatutako norabidearekin bat egiten duten kideen eta herri sektoreen indarren parte-hartzea bultzatu nahi dugulako. Eta bestetik, Euskal Herriko independentismoaren eta indar eraldatzaileen indarrak martxan jartzeko ekarpena izan nahi duelako.

Ze parte hartze modu egongo dira?

Zergatik eskaini espazio berriak?

P.O.: Sorturen Birfundazio Kongresuak berritzailea izan nahi du eta horrek bi aldagai ditu: bata, ahalik eta kide gehienen parte-hartzea litzateke; eta bestea, barne-demokrazia eta gardentasuna.

Birfundazio Kongresuan parte hartzeko akreditazio sistema abiatu dugu. Akreditazio sistemak, ezker abertzalearen proiektu politikoarekin bat egin eta izena ematen duen kide orori aukera emango dio eztabaidan, ideien zein ekarpenen trukatzean, hautagai izan edota hautagaiak aurkezteko eta bozka bidezko erabakietan parte hartzeko.

Akreditazio sistema honen irizpide nagusia, kide bat bozka bat izango da. Horretarako, akreditatzeko aukerak zabalik badaude ere, irailean eta azaroan akreditazioak sustatzeko kanpainak egingo ditugu.

Akreditatzen diren kide guztiei ohiko bide presentzialak eskaintzeaz gain, herri batzarrak alegia, telematikoki iritziak, hautagaitzak zein po-

nentziak eta bozka emateko bitartekoak eskainiko dizkiogu.

Preso dauden kideen parte hartzea ere, ahalik eta indartsuena izatea bultzatu nahi dugu. Funtsezkoa deritzogu, beraien iritzia ere presente egotea eta erabakien parte izatea. Horretarako, herri bakoitzean tokiko preso bakoitzaren akreditazioa egiteko pertsona batek ardura hartzea litzateke gure apustua, bozka delegatuaren bidez, parte-hartze hori ziurtatuz.

“Akreditazio sistema honen irizpide nagusia, kide bat bozka bat izango da”.

Ezker abertzaleran inteligentzia kolektiboa aktibatu behar dela diozue.

M.Z.: Arestian aipatu dugun parte hartzea sustatu eta praktikara eramatearen konbikzio horrek eraman gaitu Sorturen Birfundazio Prozesua ezker abertzalearen inteligentzia kolektiboa aktibatzeke prozesu gisa izendatzera.

Intelligentzia kolektiboa diogu, sinetsita baikaude herrigintzaren esparru anitzetan, unibertsitate eta akademiaren munduan eta ezker abertzaleko kidegoaren artean oro har, ekarpen teoriko eta praktika aunitz mahai gaineratu direla azken urteotan, hamarkadetako borroketan pilatu dugun herri jakintza ahaztu gabe noski. Eta horixe da, ezker abertzalearen inteligentzia kolektiboa. Horixe da hausnarketa eta praktika kolektibo bat eraikitzeke aktibatu nahi genukeen inteligentzia partekatua.

Iraultza bat behar dela diozue, antolatzeko moduetan zein jardueraren moduetan. Ze printzipiotan oinarritu behar da hori?

P.O.: Gure antolatzeko, jarduteko eta aritzeko bideak errotik eraberri-

tu behar ditugula adierazteko asmoz hitz egin izan dugu iraultzaz. Iraultza horrek, ezker abertzaleari betidanik ezagunak zaizkion balio etiko-politikoak berreskuratu (umiltasuna, zintotasuna, kritikotasuna, elkartasuna, besteak beste) eta garai berriei anbizioz eta irabazteko bokazioz eusteko kultura politiko berri bat eraikitzeke balio beharko liguke.

Iraultzaz hitz egiten dugunean beraz, kultura politiko berri bat, gure burua antolatzeko eta aritzeko modu berriak eraikitzeaz ari gara. Eta honek, zera esan nahi du: Sortu berriak herritarrekin eta herritarren itxaropen, espektatiba eta beharrekin birkonektatu behar duela, eraldaketarako tresna bokazioa izango badu. Eta halaber, Sortu berriak herri honetan prozesu soberanista-independentista bat bururaino eramateke ekarpena egingo badu, anitzen artean lan egiteko,

“Euskal Herrian prozesu soberanista-independentista bat abiarazi eta irabaz bidean jarriko badugu, orain arteko ibilbidea baliotan jarri eta gure burua eraberritzea funtsezkoa da”.

herritarrak prozesu horretara gehituzeko praktikak sustatzen asmatu behar duela.

Sortu berriak herri honetako askatasun nahiei eraginkortasun politikoa eman behar dien tresna behar luke izan. Bizia, borrokalaria, alaia, errebeldea eta eraldatzailea. ■

IRITZIA



Floren Aoiz Monreal

Behar dugun Sortu, behar dugun XXI. mendeko Ezker Abertzalea

Ez da erraza ezker abertzaleran ibilbide historikoaren uneak bereiztea, baina ausartuko naiz, halarik ere, beharrezkotzat jotzen baitut aurrean ditugun erronken garrantziari erreparatzea.

Ezker abertzale gisa ezagutzen dugun mugimendu sozio-politiko-kulturala sortu zenetik eman den aldaketa handienan gaudela uste dut. Zutik Euskal Herriaz gorpuzten hasi zen eta Abian eztabaidaz bultzada ederra eman diogu. Aldaketa hau izugarriko erronka da, ezker abertzalea bere burua birrasmatzen ari delako orain arteko erro, oinarri eta esperientzia baliatuz. Berrikuntza jarduera da, baina ez edozein berrikuntza, sustrai sa-

konon arabera, ausardiaz eta mila-kideren urteetako lanaren gainean egindakoa baizik.

Ez gaude, beraz, edozein egokipenetan, gure ikuspegi eta jardueraz gain geure burua ere aldatzeko saioan baizik. Ezker abertzaleak lurrikara eragin du Euskal Herrian, baita Euskal Herritik at ere, baina lurrikara honek ezker abertzalea bera astindu du, beste inor baino gehiago, agian. Hamarkadetan zehar nagusitutako logika (gatazka logika, aldebi-kotasunaren logika, jarduera logika, antolakuntza logika...) kolokan jarri dugu eta beste batera goaz, baina nabarmena da bidean gaudela oraingoz, iritsi ez garelarik.

Ahalegin erraldoi honetan Sortu berriaz erditzen ari da ezker abertzalea, gure herriaren aginduz. Ez gara ohiko alderdi batez ari, mugimendu eraldatzailearen antolaketa esparruaz baizik. Eta eraldaketa bokazioak eman behar dio Sorturi, baita ezker abertzale osoari ere, lojika berriaren oinarri nagusia. Herriak sortu zuen ezker abertzalea eta herriak birsotuko du orain XXI. mendeko ezker abertzalea. Ez da erraza izanen, baina aizuek, nor hurbildu da inoiz ezker abertzalearengana gauza errazak egiteko? Guk mundua aldatzeko asmoa dugu, Euskal Herritik hasita, ez gabiltza erronka ttikitan!

Gora gu ta gutarrak! Gora Herria!

Lidergoaren gaitza

Kizkitza Gil de San Vicente

Batzuetan kostata izan bada ere, ezker abertzaleak askapen prozesuan funtsezko blokeoak identifikatu dituen bere jarduna zintzoki hausnartzeko ausardia erakutsi du. Hau da seguraski gainontzeko eragileekin ezberdintzen gaituen identitatearen ezaugarri nagusienetakoa. Dohai handia dena, arazo bilakatu da ere, aldaketa nahiak pendulatzen eta ezberdinen arteko prozesuek eskatzen dituzten ezinbesteko eritmo eta eskema moldaketak krisi bezala izendatzera eramango gaitu. Hala ere, inkonformismoa, bilanetan zorrotasuna, testuingurua

klabe politikoen arabera irakurtzea, agenda markatzeko eta prozesu politikoa sortzeko etengabeko anbizioa geuegiten gaituzten jarrerak dira. Horregatik, laster ala beranduago, oraingo ariketan murgilduko ginela aurreikusi zitekeen beraz.

Aitzitik, askapen prozesuak egun bizi duen krisia izendatzeko nola baita iruzurra burutzen ari dela uste dut. Euskal agenda da blokeatua dagoena eta honen erantzukizuna guztiona da. Eskozia eta Kataluniako prozesu independentistek ezarri duten txanparekin bat egin ez izana

edota, eredu hauek eta Estatu Espainolaren zentralismo eta autoritarismo ekonomikoa begi bistan zeuden bitartean, autonomismo politikoa ahuldu ez izana, abertzale guztion porrotak dira. 2011n Aieteko jauregian burututako nazioarteko konferentziaren bide-orria garatu ez izana demokrata guztion porrota den bezala, are gehiago ETaren iniziatibak irekitzen zuen testuinguru historikoan nazioarteko eragiletza zabala Euskal Herrira begira zegoenean. Ezker abertzalearen misioa, gaur gaurkoz, ez dira arrazoia duela frogatzea edo hegemonikoa bi-

lakatzea. Ezker abertzalearen misio nagusia Euskal Herriak Euskal Estaturantz doan ibilbide demokratikoa abiatu eta horretan urrats determinanteak eman dezan lortzea da. Denon artean eta egiazki. Honetan lidergoaren gaitzak ekarpena eta kaltea egin dezake. Lidergoak blokeo edo krisien erantzukizuna barneratzea ekartzen du, nor beraren erantzukizuna onartzea. Alta, eszenatoki politiko positiboak

lortzen direnean nor beraren abilezia edo ekarpen soilari egokitzea ekartzen du ere. Ezker abertzalean ezin dugu ez bata edo bestean erori.

Ezker abertzalea iniziatiba berarrartu eta astindua ematen ari da, eskaintzan eta jardunean eraginkorrakoak izatera behartuak gaude. Zintzotasun berdinarekin konpartitu dezagun egoerarekiko erantzukizuna. Gu anbizio politikoa dugun

gorputz eta arimaz aritzen garen pertsonak gara eta mugimenduaren aktiboa nagusia dugun kapital humanoa, organizatiboa eta historikoa dira. Txikitasun honetan Euskal Herriaren politika markatu dugu: eragiten, egiten, sortzen, proposatzen, bultzatzen, behartzen, pentsatzen. Hortaz, gutaz espero zitekeen etxeko lanetan murgilduak gara, kanpoan eragiteko eta besteek mugiarazteko.

Sortu, alderdi bat baino zerbait gehiago

Antton López Ruiz "Kubati"

Herri baten askapen nazional eta sozialerako borroka bizitzako hainbat arlo barnebiltzen dituzten gorabehera ugariz jositako bide bat da, eta, batzuetan, gorabehera horiek bizitza bera bilaka daitezke. Bide horretan aurrera egin ahala, gure identitate politikoa taxutzen dugu, eta, batzuetan, identitate politiko hori gure nortasuna bilaka daiteke. Izan ere, indarrez besarkatzen gaituenean, ideologiak oso eragin handia izan dezake gure izaeran, baina ezin diogu utzi hartzairen besarkada bihurtzen.

Iragan hurbilean, gure uste intelektual, filosofiko eta ideologiko sendoei ematen ziguten segurtasunaz armaturik, gure mundua eraldatu nahi genuen. Orain berriro ikasi behar dugu mundu hori interpretatzen, baina errealitatea interpretatzeko erabiltzen ditugun elementu analitikoak zaharkituta geratzen ari dira, hitzak, eszenaratzeak, mezu politikoa eta egitura klasikoak zaharkituta geratzen ari diren bezalaxe.

Gaur egun, forma sozial eta politikoak halako eskizofrenia moduko bat pairatzen ari dira, eredu berriak agertzen ari direlako eredu ezagunen ondoan. Oso erraz jasotzen dugu kanpotik datorkigunaren eragina, eta horren aurrean termi-

no zehaztugabeak, lausoak eta batzuetan behartuak erabiltzeko joera izaten dugu. Termino horiek nahasmena eragiten digute eta gure itsasontzia uanean uneko haizearen menpe dabilelako itxura ematen dugu. Norabide egokia aurkitzeko gara ez da besteen antzekoak izaten saiatzea, gu geu izatea baizik.

Sortu ez da alderdi klasiko batekin nahasi behar, ez baita alderdi klasiko bat izan behar. Alderdi ordezkatzailerak esaten zaien horiekiko distantzia markatu behar dugu. Horri dagokionez, gure nortasun politikoa oso argia izan da beti: nazionala, soziala eta "ismoen" ortodoxien kontrakoa beti.

Sortuk ardura organiko eta etikoaz jardun beharko du kudeatzen zaila den eremu batean: autoritatearen eremuan, alegia. Horretarako, jokabide argi batzuk finkatu behar ditu funtsezkoak diren bi arlotan: egituraren arloan eta pertsonen arteko harremanen eta militantziaren arloan.

Egituraren arloan, Sortuk bere aginpide betearazlea erakutsi beharko du, hau da, agindu egin beharko du, baina "aginte zubian" hain ohikoak izaten diren tik autoritario eta abangoardistak erabat alboratuz.

Pertsonen arteko harremanen eta militantziaren arloan, berriz, kontuan izan behar dugu areririk okerreina barne arerioa dela. Militanteen arteko begirunea eta estimu katea zaintzen ez badira, pultsio emozionalak uzkuriturik edo zeharo bazterturik geratzeko arriskua dago, eta horrek hoztasun eta mesfidantza giroa sortzen du erakundean. Kontua ez da guztiok lagunak izatea, baina konfiantza kideenganako segurtasuna ematen dizun eta helburuak lortzera animatzen zaituen motorra da. Barne borrokek lehentasunezko kontuetatik desbideratzen dute arreta eta energiak xahutzen dituzte. Haien eraginez, garrantzitsuak diren gauzak bigarren plano batean geratzen dira eta eztabaida antzuetan murgiltzen gara.

Sortuk XXI. menderako indar politiko gisa proiektatu behar du bere burua. Formalki alderdi gisa aurkeztu den arren, gure logikak esaten digu ez dela alderdi bat izan behar. Antolakuntza eredu zorrotz baten eta mugimendu izaeraren arteko oreka izan behar da Sorturen ezaugarri nagusietako bat. Aldi berean alderdia eta mugimendua izango den Sortu bat behar dugu, alderdi-mugimendu bat alegia.



Logoaz eta leloaz

Uztailaren 2ko asanbladan, Sorturen iruditegi berria aurkeztu zen. Aldaketa handia eragin du aurreko irudi korporatiboarekiko. Jendeak nabarmendu duena batez ere koloreen indarra eta izarra elementu gisa izan dira.

Sortuk fase politiko berrian euskal jendarteari eskaini nahi dion proiektua eta jarduera modua azaldu nahi izan dira marka irudi berriarekin. Zortzi puntako izarren bidez, Euskal Errepublikaren ideia adierazten du. Era berean izarra puntu komun batean biltzen diren ipar-orratzez dago osatua. Gorria nabarmenduta dago, sozialismoaren iparra markatzeko.

Koloreek mugimendu izaera, gaitetasuna, aniztasuna eta bizitasuna emateaz gain beste gauza bat ere adierazten dute: eskaintzen dugun proiektu politikoa eta borrokarako espazioa guztion artean eraiki beharrekoa dela,

eta hamaika borroka sozialek tokia dutela Euskal Errepublikaren proiektuan. Elkarlanerako gonbidapena da. Bestetik, ezker abertzaleak badu kapital politiko eta historikoa. Guzti hori baliatuz, gaurkotu eta etorkizunera begira jarri nahi da. Hargatik gogoraziko diote askori kolore guzti horiek Herri Batasunaren izaera borrokalaria. Sortuk, independentzia eta sozialismoaren proiektuarekin bat egiten duten kide guztien bilgune izateko borondatea du.

Azkenik, letra tipoa ere aldatu da, irakurtzeko erraztasuna eta dinamismoa emanez.

ETA ZERGATIK GORA HERRIA?

Bada ezker abertzalea herritik datorrelako eta herriari zor gatzazkiolako. Maite dugu gure herria, onena nahi dugu gure herriarentzat eta horregatik borrokatzen dugu.

Sinesten dugu gure herriak dituen baloreetan: erresilientea, komunitate izaera indartsukoa, solidarioa, beti lanerako prest. Eta sinesten dugu herri hau helburu jakin baten alde antolatzen denean gauza handiak egiteko kapaza dela.

Mugimendu sozialek duintasunaren alde egiten duten lan eskerga eskertu eta goraipatu nahi du leloak. Herriz herri egiten den lana goraipatu nahi du leloak. Eta ezker abertzalea berriz ere herri hau zutik, indar batean jartzeko lanean ari dela ere adierazi nahi du leloak.

Arnaldo Otegia esaten duen gisan, herri honetako ezkeriar eta abertzaleok pultsua hartzen dugunean, Euskal Herriak eta independentismoak pultsua berreskuratzen du. Beraz, ez dugu erronka makala esku artean.

GORA HERRIA!